Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

966

EBAZPENA, 2008ko urriaren 27koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzu zuzendariarena, EB2-1228/06-LC espedientean (SD2-01239/05) Francisco Javier Sanz Jimenez jaunak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa ebazten duena.

AURREKARIAK

1.– EB2-1228/06-LC espedientearen babesean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko maiatzaren 12ko Aginduaren bitartez, Bilboko udalerriko Bilbao La Vieja-San Antón aldean babes ofizialeko 85 etxebizitza esleitzeko hautaketa-prozesuari hasiera eman zitzaion eta horren inguruko hainbat zehaztasun finkatu ziren.

2.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Bizkaiko lurralde-ordezkariak, 2008ko abuztuaren 11n emandako ebazpenaren bidez, prozedura horretan onartu eta baztertutakoen zerrendak onartu zituen. Francisco Javier Sanz Jimenez jauna ez da zerrenda horietan ageri, ez sustapenean onartu bezala, ez eta baztertu bezala ere.

3.– Ebazpenarekin ados ez zegoenez, Francisco Javier Sanz Jimenez jaunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuen 2008ko irailaren 9an. Errekurritutako ebazpena berraztertzeko eskatzen du.

Aurrekari horietan oinarrituz, hona hemen

OINARRIAK

1.– Sail honetako Zerbitzu zuzendaria da errekurtso hori ebazteko eskumena duena, horrela xedatzen baita Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuan. Errekurtsoa, nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoari jarraituz aurkeztu da.

2.– Honakoak dira erabili beharreko arauak: martxoren 4ko 39/2008 Dekretua, babes ofizialeko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa; Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Agindua, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko pro-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

966

RESOLUCIÓN de 27 de octubre de 2008, del Director de Servicios del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se resuelve el recurso de alzada presentado por D. Francisco Javier Sanz Jimenez en el expediente EB2-1228/06-LC (SD2-01239/05).

ANTECEDENTES

1.– Al amparo del expediente EB2-1228/06-LC, se inició mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales de fecha 12 de mayo de 2008, el procedimiento de selección y de determinan diversas especificaciones para la adjudicación de 85 viviendas de protección oficial en Bilbao La Vieja-San Antón en el municipio de Bilbao

2.– Mediante Resolución del Delegado Territorial en Bizkaia del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, con fecha 11 de agosto de 2008, se aprobaron las listas de admitidas/os y de excluidas/os del procedimiento de referencia. En dichas listas D. Francisco Javier Sanz Jimenez no figura ni admitido ni excluido en la promoción.

3.– Con fecha 9 de septiembre de 2008, D. Francisco Javier Sanz Jimenez interpone recurso de alzada contra la anterior Resolución, mostrando su disconformidad con la misma. Solicita la revisión de la resolución recurrida.

Sobre la base de estos Antecedentes, se formulan los siguientes

FUNDAMENTOS

1.– El Director de Servicios de este Departamento es el órgano competente para resolver el recurso de alzada que se examina de conformidad con lo establecido en el Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, y el recurso ha sido interpuesto de acuerdo con lo previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– El régimen legal aplicable es el establecido en el Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen de vivienda de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, la Orden de 16 de abril de 2008 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimiento de adjudicación de viviendas de

zedura arautzen duena; eta 2008ko maiatzaren 12ko Agindua, Bilboko udalerriko Bilbao La Vieja-San Anton aldean, babes ofizialeko 85 etxebizitza esleitzeko administrazio-prozedura hasten duena.

3.– 2008ko maiatzaren 12ko Aginduaren bosgarren xedapenean xedatzen denez, 2007ko azaroaren 30ean baino lehen jaso badira erregistroan, Etxebiden inskribatzeko eskabideak kontuan izango dira.

Agindu horren seigarren xedapenak dioenez, halaber, eskatzen diren lagapen-erregimenei eta udalerriei dagokienez, agindua argitaratzen den eguna kontuan hartuko da.

Kasu honetan, espedientea aztertuta ikusi da ezen 2007ko abenduaren 27an errekurtsogileak eskatu zuen babes ofizialeko alokairuko etxebizitzak, etxebizitza sozialak, etxebizitza libre erabiliak eta Bilboko udal etxebizitzak eskuratzeko bidea aldatzea. Hori dela eta, aztergai dugun Agindua argitaratu zenean (2008ko ekainaren 12a), errekurtsogilearen eskaria alokairuko etxebizitzen eskatzaileen erregistroan inskribatuta zegoen, eta sustapena erostekoa denez, ezin du sustapenean parte hartu. Beraz, ebazpena zuzena da oraindik, eta sendetsi beharra dago.

Azaldutako oinarriak, aipatutako legezko xedapenak eta horiekin bat datozen eta osagarri diren gainerako xedapen aplikagarriak ikusita, hauxe

EBATZI DUT:

Francisco Javier Sanz Jimenez jaunak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa ezestea. Errekurtsoa Bizkaiko lurralde-ordezkariak EB2-1228/06-LC espedientean emandako ebazpenaren aurka aurkeztu zen, eta bere hartan berretsi behar da, zuzenbidearekin bat baitator.

Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du; hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian. Ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunean hasi eta bi hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 27a.

Zerbitzu zuzendaria,
MIKEL ARANA ECHEZARRETA.

protección oficial y la Orden de 12 de mayo de 2008, por la que se inicia el procedimiento administrativo de adjudicación de 85 viviendas de protección oficial en Bilbao La Vieja-San Antón en el municipio de Bilbao.

3.– La Orden de 12 de mayo de 2008, señala en su Resuelvo Quinto que se tendrán en cuenta las solicitudes de inscripción en Etxebide que hayan tenido entrada en el registro hasta el 30 de noviembre de 2007.

Por su parte, el Resuelvo Sexto de dicha Orden señala que se tendrán en cuenta los regímenes de acceso y los municipios demandados a fecha de publicación de la presente Orden de inicio.

En el supuesto que nos ocupa, examinado el expediente se comprueba que con fecha 27 de diciembre de 2007, el ahora recurrente solicitó cambiar el régimen de acceso a alquiler de vivienda de protección oficial, vivienda social, vivienda libre usada y viviendas municipales de Bilbao, por lo que cuando se publicó la Orden que nos ocupa, el 12 de junio de 2008, la solicitud del recurrente estaba inscrita en el registro de solicitantes de vivienda en régimen de alquiler, y al ser la promoción de compra, no puede acceder a la misma, y en consecuencia, la resolución sigue siendo correcta y debe confirmarse.

A la vista de los Fundamentos expuestos, las disposiciones legales citadas y demás concordantes y de general aplicación

RESUELVO:

Desestimar el recurso de alzada interpuesto por D. Francisco Javier Sanz Jimenez contra Resolución del Delegado Territorial en Bizkaia recaída en el expediente EB2-1228/06-LC, en cuyos términos ajustados a Derecho ha de confirmarse.

La presente Resolución agota la vía administrativa, si bien cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de los de Bilbao en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la notificación de esta Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de octubre de 2008.

El Director de Servicios,
MIKEL ARANA ECHEZARRETA.